

ZENBAT BURU

Eguzkiñe Aranberri

ERREPORTA

Pako Iriondok Euskal

Mendi Federazioko

lehendakaritza

lagako du

# BARREN

2000ko uztaillaren 14a  
Vill. urtea - 329. zkia

E L G O I B A R K O A S T E K A R I A

GENIARRIA

Zaharrak berfr

KULTURA

Ibon Arregik irabazi

du jaietako kartel

lehiaketa



121 Pako Iriondo:

"Mendiko ardiak, mendian begiak" (Esaera zaharra)

1992ko uztaillaren 14a - 329. zkia

"Mendiko ardiak, mendian begiak" (Esaera zaharra)



# GREMIOEN GIDA

Gremioen gida honetan azaldu nahi baduzu, deitti! Li 9'43 74 37 04

## AROSZTEGIAK

### BIENA

Neurrira egindako lana  
Ermuaranbide, 16  
943 74 31 16

### GARCIA

Aluminioa eta PVCa  
P. Muguruza, 30  
z' 943 74 32 38

### LODOSO

Leihoak  
Ermuaranbide, 16  
943 74 34 90

### SORALUZE

Leihoak-Armairu enpotratuak  
Santa Ana, 8  
Tr 943 74 36 34

### ULAZIA

Aroztegia eta enbalajeak  
Santa Klara, 10  
z' 943 74 05 47

### ZABALA

Etxeko erreformak-enbalajeak  
Deba kalea, 16  
943 74 03 96

## 10 LAM DUAK

### GLAS CONTROL S.L.

Inpermeabilizazioak  
Olaso 27, 47. pabiloia  
'Er 943 74 30 94

## ITU GINTZA

### ANGEL

Santa Ana, 5  
"a" 943 74 17 61  
689 04 92 06

### JAVI

Erretxindi, 1  
er 608 77 29 32

### ONGI

Urasandi, 8  
943 74 10 82

### PAGOAGA

San Antolin, 13  
tr 943 74 02 79

### TELLABIDE

Azpilgoeta, 19 MENDARO  
'tr 943 75 50 62  
17 607 75 50 62

### ZALDUA

Urasandi, 26  
z' 943 74 05 30

### ZUBIZARRETA

Ubitarte, 5  
943 74 07 89  
608 14 30 40

## P2©11

### JESUS Mg. GABILONDO

Ubitarte, 4-5 esk.  
17 943 74 45 99

## PINTURAK

### IPINTZA

Foruen enparantza, 4  
943 74 04 40  
607 74 04 40

flural1.t mra

### ARAMAR

Morkaiko, 1  
ff 943 74 12 80

### AZPELETA

San Frantzisko, 51  
943 74 12 38

### BETI ARGI

Errosario, 6  
z" 943 74 16 44

### URZELAI

Santa Ana, 12-14  
17 943 74 13 76

## UIE ZA

### ANTONIO MARKEZ

Urasandi, 24  
13: 943 74 34 18

### ASKETA

Osio, 7 DEBA  
s' 629 34 43 89

### JOSE LUIS MENDEZ

Urasandi, 24  
943 74 29 87  
13 689 58 47 23

### IPINTZA

Trenbide, 25  
"a' 630 95 97 58»7  
Faxa: 943 74 45 97



EGUZKIÑE ARANBERRI

Atai hau ez da BARRENen editoriala. Urtero 15 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, plurattasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.

**U** daran Euskal Herriko Unibertsitateak antolatzen dituen ikastaroetako batetik etorri berria naiz eta bertan entzun eta ikasitakoa ahalik eta "bite" gutxienetan biltzen ahaleginduko naiz.

Ikastaroa hasi bezain pronto konturatu ginen gure hiztegiari, hitz berriak gehitu beharrean aurkitzen gara. Bai, terminologia berria ikasi beharrean aurkitzen gara **DE-NOK. Hirugarren**

**Iraultza Industrialaz hitz** egin digute, aro digitalaz, merkatu digitalez, ekonomia berriaz (La Nueva Economía), informazioaren gizarteaz, telefono mugikorren laugarren belaunaldiaz, etab. Ahaztu gabe noski e-aurrizkiaz sortu berri diren termino berri guzti horiek (e-business, e-commerce, e-marketing). Eroskik, bai, Eroskik, egunero erosketak egiten ditugun supermerkatu, consumo edo maxiak, gaur, esnea eta ogia eskaintzen digun bezala, epe laburrean produktu finantziarioak eskainiko dizkigu. Konturatzen al zarete zertaz ari garen? Jandak banketxeek "beidurra" diote beren iehiakide berriari eta belarriak erne dituz-

## e-pa

**"Argiak argitasuna emateaz gain, gerizpea ere sortzen du".**

**"Kafe baten inguruan sortzen diren eikarrizketa epel horiek gordetzeko gai izango ote gara?"**

te, erniatuta ez esatearren. Hizlari batek, bikain azaldu zigun, bizi dugun garaiaren elastikotasuna. Bere amak 80 urte ditu eta internet erabili beharra izango du. Ez gus-tuko duelako, aldiz, beharra izango duela-ko. Gertaera guztiek, prozesu lineal bat jarraitu beharrean, mugimendu exponentzialak burutzen dituzte. Baina noski, gure gizatasunak ez ditu berritasunak askotan azkartasun berdinarekin bereganatzen. Ondorioz, hainbeste be-

rri birtualek, beldur eta burukomin piska bat sortu didate. Badakigu argiak, argitasuna emateaz gain, gerizpea ere sortzen duela. Eta gerizpeak sortutako iluntasun

horretan desabantaila edo arazoak izkuta daitezkeela. Ez ote gaitu hainbeste mul-ti media, telekomuni-kazio eta informa-zioz itoko? Kafe ba-ten inguruan sortzen

diren aurpegiz aurpegiko elkarrizketa epel horiek gordetzeko gai izango ote gara edo aldameneko logelan dagoen anai-arrebarekin hitz egiteko 'emilio' edo 'txat'era jo behar izango ote dugu hain hurbil dagoen etorkizun horretan?

## Bak, Birrak eta Barreak





Nafarroa enparantza, 2  
20870 ELGOIBAR

☎ 943 74 41 12

Publizitatea:

v 943 74 37 04

Faxa: 943 74 37 04

E-maila: barren@topagunea.com

Helbide informatikoa:

www.ihardun.comlbarren

ARGITARATZAILEA Elgoibarko Izarra

LAGUNTZAILIA Elgoibarko Udala

ZUZENDARIA Eli Aizpuru

KAZETARIAK Irati Agirreazaldegia,  
Asier Orbea

PUBLIZITATEA Andoitz Agirregomezkona

MAKETATZAILEA Bea Ansola

ADMINISTRAZIOA Amaia Martin

GERENTZIA Rafa Alvarez,

M. Angeles Ortuoste.

**KOLABORATZAILEAK** Ainhoa Andonegi,

Aitor Argarate, Idoia Arozena,

Aitzol Arriola, Martin Dominguez,

Juanito Gorosliza,

Arnaitz Gorriti, Ion Gurrutxaga, KOKOE,

Imanol Larrañaga, Aintzane Larrea,

Ion Loiola, Ongarri Zine Kluba,

Iñigo Olaño, Jon Peli Uriguen,

Iban Urizar, Amaia Urzelai,

Maite Vallejo, Lourdes Zubiaurre.

**BANAKETA ARDURADUNA** Imanol Larrañaga

**EUSKARA ZUZENTZAILEA** Ibon Arriola

**INPRIMATEGIA** Gertu Koop. E.

Tirna 4.000 ale

**LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92

**ISSN** 1139-1855

*Elgoibarko Udalak, Eusko  
Jaurlaritako Kultura  
Sailak eta Foru  
Aldundiak diruz  
lagundutako  
aldizkaria.*



gizarte-ekintza  
obra social

**4 hDANOBAT**

17°  
GRUPO DANOBAT

## Eskerrik asko zuen elkartasunagatik

**E**lgoibarko Senideak eta Euskal Presoak Euskal Herrira Plataformak, hilaren 11n, asteartean, presoek eskubideen aldeko martxa nazionalen, era batean edo bestean, parte hartu zuten elkarte, erakunde eta hiritar guztiak eskertu nahi dituzte.

Presoak herriratzearen helburua, azken urteetan, gure gizarteko arlo eta maila guztietan onartua eta eskatua izan bada ere, gaur da eguna, oraindik, espainiar eta frantziar estatuetako agintariek, hain "konstituzionalista" izanik, beraien legea betetzen ez dutena, gure preso eta, batez ere, senideen sufrimendua areagotuz.

Senideak-ek antolatutako martxa nazionala, gure presoek sakabanaketaren aurkako beste urrats bat besterik ez da izan, eta bertan parte hartu duzuenoi, eskerrak emateaz gain, hemendik aurrera egingo diren beste ekitaldietara ere etor zaitezten animatzen zaituztegu, zoritxarrez gehiago egin behar izango ditugulakoan baikaude.

Era berean, presoek herriratzearen alde zaudetela esan arren, egoeraren aitzakiaz, Senideak-en martxan egon zaretenok ere, animatzen zaituztegu hurrengo batean, laster, egingo diren ekitaldietan parte har dezazuen, denon indarra eta batasuna beharrezkoa bati-tugu herri honen hitza eta erabakia gure etsaiek onar dezaten: Euskal Presoak Euskal Herrira.

I.O.

NA. 15.364.490

(Elgoibarko Senideak eta EPEH  
Plataformaren izenean)

BARRENez ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiak ondo identifikatuta egon behar dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefono zenbakia**.



# BA1, ESAN?



OO III - -

&Airal

**Uzuri Larrañaga**

Optikoa

Aste honetan Gipuzkoa osoko 60 optikari eta okulista bildu dira Donostiako Poliklinikan beraien lanbidearen etorkizunari begira. Begiaren kirurgian ematen ari diren aurrerapausoei buruz hitz egin dute. Eta ohizkoak bihurtu zaizkigun betaurrekoen edo lentilengan izango duten eragina aztertu. Azken emaitzek azaldu dutenez, oraindik ezin izango ditugu betamrekoak alde batera utzi. Honi buruzko gauzak argitzeko, guk **Uzuri Larrañaga optikariarekin** hitz egin dugu.

- **Zer da laserraren bidez egiten den kirurgia?** Laser mota askotakoak daude, oftalmologian ere aplikazio desberdinetarako erabiltzen da. Aplikaziorik ezagunena edo gehien entzuten dena behintzat, "teknika" deitutakoa da, eta dioptriak murrizteko erabiltzen da. Teknika honekin, lehenengo instrumento berezi batekin, korneako geruza fin bat jasotzen da (epitelimn, ondoren laserra, lurrinketaren bidez, oftalmologoak erabaki duen honna ematen joaten da. Zenbat eta dioptria gehiago izan kendu beharrekoak, gehiago iraun beharko du prozesuak.

- **Lentilak edo betaurrekoak erabiltzen dituztenentzat soluzio definitiboa al da?** - Ez, baina dioptria gutxiagorekin geldi daitezke. Kasu gehienetan dioptriak erdira edo lera jeitsi ohi dira.

- **Pertsona askok egiten al du operazio hau?** Europan askoz gutxiago egiten dira mota honetako ebakuntzak. Espainian, estatistikek diotenez, 25.000 pertsona inguru operatzen da urtean.

- **Arriskurik ba al dago?** Bai, infekzioak esate baterako, eta lehen-  
zo teknikarekin behintzat begiko "zentro bisuala" asko izorratzen da.

- **Edade guztietako jendeak egin al dezake operazio hau?** - Ez, oftalmologoak 22-23 urtetik 43 urtera bitartekoek egitea gomendatzen dute.

- **Zer gornendatuko zenieke kirurgia hau egin nahi dutenei?** - Informazioa eskatzea. Norberaren kasuan abantailak eta pegak ikustea eta besteen esperientzian ez oinarritzea.

## GALDERAK

• Neska batek honako galdera hau luzatu digu: **Mintxetan igerilekua** egiteko proiektua zegoen. **Noiz egin behar dute?**

BARRENetik udaletxera deitu dugu eta honako hau erantzun digute: "Proiektua **hor dago baina momentuz alde batera utzi dugu**. Ez dago erabat baztertuta baina epe laburrean behintzat, ez da egingo".


## KEXAK

• Mutiko bat etorri zaigu erredakziora honako kexa hau azaltzera: "Arregitorren **parkerik ez** dago. Jolasteko lekua nahi dugu, lehen bazegoen baina dena apurtuta dago eta zerbait egitea nahi dugu".



## ESKERTZA

*2000ko ekainaren 30ean, 84 urte zituela hil zen ISIDRA. URKIOLA MALASETXEBERRIAREN sendiak, bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*



PAKO IRIONDO. Euskal Mendizale Federazioaren Presidentea

## "Indurainek ziklismua laga zaban beie

*Pako Iriondo aski ezaguna zaigu elgoibartar guztioi. 73 urte ditu eta ia bizitza guztia, eskaini dio bere zaletasuna denari, mendinari, alegia. 18 urte daramatza Euskal Mendizale Federazioko Presidente karguan. Duela gutxi, Pakok Federazioa utzi behar zuela entzun genuen eta hainbeste lan egin ondoren harturiko erabaki hura benetakoa zen edo ez jakiteko, zer hobeto berarengana jotzea baino. Elgoibarren Euskal Federazioak duen bulegora joan gara eta han aurkitu dugu Pako bere mahaian eserita eta urte hauetan guztietan inguruan izan dituen mendiko argazkiez ingurututa. Lana uzteko erabakia hartua duela baieztatu digu*



*Lehendakari bezala, mendizale asko ezagun Argazkam Kurt Diemberger Austriako mend*

### **.Zein da Federazio bateko lana?**

Mendixan dabilen jendiari edo hasi nahi dabanari fonnaziva ematen diou, mendizaletasun hori autonomian bateratze lanak ein, lizentzien administraziva... Holakuak dia federazio bateko lanak. Gure federaziotik, "Pirenaica" rebistia ere eitxen dou. Zabalpen haundixa daka rebista honek. Estaduan, beste federazio danetara ailegatzen da eta kanpua beste bost naziotara ere bai.

Udaletxe batzuetatik, diputazioutatik edo hainbat autonomi etatik ere lagutzen digue. Gestio asko ein bihar dia. Federaziva ondo juteko eguneroko lana biharrezkua da.

### **Hau guztia Elgoibartik egiten al duzue?**

Ez. Bi ofizina ditzugu. Bat hemen eta bestia, Donostian. Elgoibarren Presidentia, Sekretarixua eta Tesorerua gaude. Administraziva hemen eitxen dou, batik bat. Donostian berriz, Direktore Teknikua, formakuntzakua eta lizentzien administravaz arduratzen dana dao. Nik lagatzen dotenian, Elgoibarko ofizinia ere desagertu eingo da.

### **Urte hauetan nola aldatu dira gauzak Federazioan?**

Asko. Ni hasi nitzan garaixan ez zauan dindaguntzarik eta Federazio Espainolak ematen ziun subentzio txiki batekin mantentzen ginan. Orduko lana zaila baina responsabilidadia ere txikixaua zan. Euskal Herrixan mendizaletasunak zeresan haundixa daka, oin beste kirol batzuk sortu dia, baina oin dala berrogeita hamar urte hemen futbola, esku pelotia eta atletismua besterik ez zan entzuten, eta mendixa, noski. Instintuagatik edo zozogatik beti eon da hemen mendizaletasunian indar haundixa. Afizio horretaz aparte, teknika aldetik ere gauzak asko aldatu dia. Mendira juteko ere erreztasun gehixao dao oin, ekipuak eta mendirako erramintzak ere esku-ara ditzugu-eta.

### **FEDERABOIA IAGATZEKO ERABAKIA Nolatan hartu duzu Iagatzeko erabakia?**

Nik barruan daruat mendixa baina lan asko ein dot. Urte batzuk ere badixtut. Urtetzeko momentua bilatzia inportantia izaten da. 18 urte federazivan ein ez gero eta 14 segidan, nik

bezala, nahikua da. Oin lasai urten eta munduan disfrutatze momentua da.

## **"Oin arnasia hartu eta bizimodu berrixa ein bihar dot"**

### **Erraza egin al zaizu erabakia hartzea?**

Inola ere ez, zaila da. Lagun asko ein ditzut eta jendian maitxasuna ere euki dot. (Hor daude, adibide gisa, egin dizkioten hainbat omenaldi). Nere aldetik ahal ditzuten guztiak ein ditzut. Bizitzari beste modu batera enfrentatzeko mentalizata nao.

### **Baina oraindik piska batean jarraituko duzu, ezta?**

Azamaren 5ian "Ohorezko Lhendakari" izendauko naute eta ordura bitxartian, lanian jarraituko dot. Asanblea hau Elgetan eingo da eta han beste presidentia presentauko dabe.

### **Zure bizitzako beste etapa bat hasiko da.**

Bai, nik jendiak maitxe nauan eta baloratzen nauan bitxartian laga nahi dot postua. Urtetzeko momentuak to-

# a laga nah n, (7., 'l' federaziua"



lagun egiteko aukera izan du. ospetsuarekin



Pako Irion  
Federazioak elgoib

pau bihar dia. Familia ere asko sakrifikau da eta erabaki honekin, lasaitxasun apur bat hartu dau. Tensio haundiko momentuak ere pasau ditzut eta andriak asko ladia, ezin naiz keja. Hala ere, as-tebum asko pasau ditzut beraiekin nahi dotena ein ezinda, beti konpromisoren hat zauan-eta. Oin amasia hartu eta bizi-modu bentixa ein bihar dot.

## LANA eta BOKABOA LOTUTA

Zerbait utzi al duzu lortu gabe?

Momentu honetan buruan nitxun gauza guztiak lortu ditzutela uste dot. Horregatik nao hain gustora eta urte-zeko momentu egokixa dala uste dot. Bueno, 'Pirenaica' aldizkarixa euskerar eta erderaz, bixetara, eixia ez dot lortu, kostua ikaragan i gotzen zan-eta.

Urte hauetako lana baloratu beharrez gero?

Neure lana nik haloratzia ez leoke hain ondo, hori bestiek esan biharko dahe. Positibua izan da, pozik nao einda-kuakin, bokaziva euki eta gustora lan eixia da kontua. Satisfaziorik haundixena jendian erantzuna da, nere lana haiek baloratzia.

## "Satisfaziorik haundixena jendian erantzuna da, nere lana haiek haloratija".

Jendea mendiaren arriskueldn kontzientziatuta al dago?

Batzuek gehixao, beste batzuek gixiao. Mendixan errespetua bihar da. Mendixa ez, da beti berdin eoten, eta norbera ere ez. Inora jun aurretik programa bat ein bihar da. Egualdixak ez baciau lafmntzen norberak ere aldaketia ein rra daka.

Mendira hasi nahi duen elgoibartar gazte bati zer aholku emango zenioke?

Kursuetan parte hartzia, fonnazio ona jaso eta teknikia hartzia. Personiak prestau gabe ezin dau gozau mendixakin. Federatzia ere oso inportantia da.

L-; a USUC  
nia

1926. ■ oko aabs.ai 932109 Ena

1941 15aTtil 12L 4129

(110.1 7i (O 1

T25211.2:911130Esbel .5.)2111

19~:~ 11k2ICD

16I~a:tab

PZIWZai

1953tik 1959ta 1: — 0

~ai tti kuull

1969tik 1971m.

e erazo o En2D 2;f:1!

tlanan19111'an m t

rdu d BE;71

1971. diEliiralfilk?Zh

ederazioko L he da ari

kAlkii hr29241976r (Eral

1986an g22261F

1411~4EED3

EIPaUf G1111113 )

b ri wpride AntRat.

1992tik i95.. r, —

SP 71 — DZWMII



Ekitaldi ugarian parte hartu behar izaten du Pakok. Argazkian, Besaiden, bertako egunean, irailaren 3. igandearen, egiten den mendian



# Oporretara nora ez zinateke sekula joango?



**IÑIGO BELAUSTEGI**  
40 urte, fresadorea

Bero haundixa eitzen daban leku batera, Afrika aldera actibidez. Ez dot berua asko aguantatzen. Bestela jatekua egonez gero, edozein tokixara jungo nintzake.



**ANA EGUREN**  
37 urte, irakaslea

Nueva Yorkera ez nintzateke sekula joango. Hiri handiegia da, jende asko dago, zarata... Onena oporretan hemen gelditzea clela uste dut.



**ROSA GONZALEZ**

40 urte, klinikako laguntzailea  
Mediterraneora, B enidorrnera, ez nintzateke joango. Eraikuntza besterik ez dago han eta apenas ikus daiteke paisaiarik. Gainera, jendez beteta egoten da beti.



**ROSI RODRIGUEZ**

41 urte, ileapaintzailea  
Herralde hotzak ez nituzke bisitatuko. Beti oporretan leku bera aukeratzen dut. Bero egiten duelako eta lasaitasun bila joaten naiz bertara, Erriberara.



**CAYETANO CASQUERO**

67 urte, jubilatua  
Errusiara, Hotz handia egiten duen henialdea da eta gainera Chemobilgo zentral nuklearena ere han dago. Beraz, beste edozein leku aukeratuko nuke Errusia haino lehen.



**HARITZ ARRIETA**

15 urte, ikaslea  
Oporretarako edozein leku egokixa dala uste dot. Baina opor garaixan ikastolara ez nintzake sekula jungo, hori argi dakat.

- Kontabilitate  
• Lan  
Fiskal



Kalamua, 12  
ELGOIBAR  
Tel-Faxa:  
943 74 18 91

**URKID1**  
**AHOLKULARITZA**  
**1TT ERCOS ASEGURROAK**



**ROCK-KAFE**  
San Frantzisko, 41 . Tel. 943 74 39 25

IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK EUSKARAZ eta GAZTELANIAZ.  
ZIKLOMOTORREKO LIZENTZIA ASTEBETEAN. AZTERKETARIK GABE!  
IZENA EMATEAN %10EKO BEHERAPENA

vialja «ffi witolata teaulaa **6** Otte/e/ePts



**ARRAÑAGA**  
T O ESK O 1 A  
Tel: 943 74 10 11



# [i] r t i [EGIRA



*Jose Cabornero*

**TREN GELTOKIKO ARDURADUNA**

- Zer ikusi nahiko zenuke bilete baten zulotik? Nire familia pozik, eta nire herria lasai eta libre.
- Zer iruditzen zaizu trenaren zarata bezain monotonoa? Eguneroko bizitza bera, goizean jaiki eta egunero gauza berdinak egin beharra.
- Bizitzako zein osagairekin beteko zenituzke treneko ba-goiak? - Gertu dauden eta maite ditudan pertsonekin.
- Zerk 'pikatzen' zaitu? - Lanean ari naizenean jendeak adarra jotzeak amorratu egiten nau.
- Zein herritako estazioan egingo zenuke betirako geldialdia? -Berrizen, bertako jendea oso gustuko dudalako, eta Elgoibarren, herri hau ere gustuko dudalako.
- Eta non ez zinateke trenetik jaitsiko? - Madrilen, dena han zentralizatuta dagoelako beharbada.
- Inoiz izan al duzu trena galdu duzun sentsazioa? - Bai, inoiz bai, baina beti pasatu da besteren bat.
- Bapozeko trena ala AVEa? Historia asko gustatzen zait, baina modernizatu egin behar garez, AVEa aukeratuko nuke.
- Inguruko jaietara joateko trena ala autoa? Trena, du-darik gabe. Bai gazteentzat eta baita helduentzat ere egokiena dela uste dut.
- Inoiz egin al duzu borrokan trenean eserlekua hartzeko? - Bai, gaztetan. Dena den, emakume edadetu bat ikusi orduko jaikitzen nintzen horietakoa nintzen.
- Zer topatu nahiko zenuke tunelaren beste aldean? - Gipuzkoako bailara zoragarrietako bat.
- Bizitzako zein une iruditu zaizu tunel bat bezain beltza? - 23-Fko kolpea izan zenean, mailetak prestatu nituen ihes egiteko eta hori oso iluna izan zen niretzat.
- Inoiz bidaiatu al duzu trenean bileterik gabe? - Bai, askotan eta harrapatu ere egin naute. Baina gehiago izan dira harrapatu ez nauten aldiak.
- Trena bezain puntual iristen al zara hitzorduetara? - Trena baino puntualago, normalean ordua baino lehen iristen naiz eta jarritako ordua baino 2 minutu beranduago iristen denari ez diot itxoiten.

**g4E<sup>1/1</sup>A**  
**ileapaindegia**  
**Depilazio Elektrikoa**  
 San Frantzisko 49-1 Tel: 9z13 74 11 89

**It** **Mandiola Egurrak S.L.**  
 Domingo Arrizabalaga  
 SALEROSKETA  
 BASOEN MOZKETA  
 Juan Mugerza, 3 n' 943 74 12 56 - (mobila) 609 53 23 83



 **leup4o.,4\*** cw.p.  
 Olaso industrialdea. Olasope, 66-A  
 Tel.-Faxa: 943 74 42 54 - 20870 ELGOIBAR  
**MEKANIZATUEN TAILERRA**

**I riondoTABERNA**  
 Astegunetan 7:00etan irekitzen dugu  
 eta asteburuetan 9:00etan

Pedro Muguruza, 2 - Tef: 943 74 00 15

## Uztaileko bigarren hamabostaldiar hasiko dira Urruzunoko Babes Ofizialeko etxeak eraikitzen

Etxebizitza kontzertatuak eta Babes Ofizialekoak 2002 urte amaierarako bukatzea espero dute

Uztailearen 4a izan zen Urruzunoko lurretan etxebizitza kontzertatuak eraikitzeko proiektuak aurkezteko azken eguna. Behin obrak egiteko agindua enpresa bati eman ondoren honek 2 urte izango ditu etxeak egiteko. Bestalde, Babes Ofizialeko 40 etxebizitzak eraikitzeko lanak uztaileko bigarren hamabostaldian hasitako asmoa dute.

1996an sinatu zuten Udalak eta Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailak Babes Ofizialeko etxeak egiteko akordioa, baina Urruzunoko lurralde urbanizatu besterik ez dituzte egin. Lanak egiteko ardura 'Iza Obras y Promociones' enpresari eman zioten urtarrilean, eta 20 hilabeteren buruan amaituta izan behar zituen etxeak. Udalletik adierazi digutenez, uztailean zehar



Urriari 120 etxebizitza kontzertatu egiteko lanak hasiko dira.

makinak lanean hastekoak omen dira.

2002rako bukatuta

Irailerako enpresa bati aginduko dizkiote 120 etxebizitza kontzertatuak eraikitzeko lanak eta honek hilabete izango du udal lizentzia eskatzeko eta

ondoren, 24 hilabete lanak arnaitzeko. Beraz, etxebizitza guztiak 2002 urte amaierarako bukatuta egotea espero dute.

Babes ofizialeko 40 etxebizitzaren artean mota ezberdinetako etxeak daude. Horietatik, 16 etxek bi logela eta komun bat izango dituzte (61,42 m<sup>2</sup>) eta beste 16 egongo dira 78,81 m<sup>2</sup>koak (3 logela eta 2 komun). Gainera, 40 garaje eta 40 trasteleku egingo dituzte.

Gainontzeko 120 etxebizitzak kontzertatuak izango dira eta 6 bloketan banatuko dituzte. Hauek ere 6 motatako etxebizitzak egongo dira, neurriaren arabera bereiztuta. Gainera 120 garaje egingo dituzte hizilaguntzant eta 130 trasteleku.

Etxebizitzaren gain, urbanizazio berri honetan lokalak ere egongo dira, 6 etxebizitza kontzertatuetan eta 2 Babes Ofizialekoetan.

## Mankomunitateak zakarrak batzeko sistema automatikoa jarriko du martxan

Sistema honekin zarata eta usain txarrak gutxitzea nahi da

### • Folklore jaialdirako sarrerak salgai

Datorren uztailearen 22an, larunbata, gaueko 22:30ean XIV. Nazioarteko Folklore Jaialdia izango da Elgoibarren. Aurten Haritz Dantzari Taldekoak eta Kuban Errepublikako Kosakoak arituko dira dantzan Kiroldegian. Sarrerak aurrez erosi ahal izango dira Txankakua Merkatariaren Elkartearen dendetan. Antolatzaileek gogorarazi nahi dute sarrerak aurrez erosten dituztenen artean 10.000 pta.ko 5 erosketa txartel zozketatuko direla Txankakuaren eskutik.

**D**ebabarreneko Mankomunitatea arduratzen da bialarako zakarren biltzetaz, eta guztira 21.000 tonelada jasotzen ditu urtean.

Mankomunitatearen helburua piskanaka hobera joatea da, eta horretarako sistema berri bat jarri nahi dute martxan. Sistemaren oinarria kontenedoreak modu automatiko batez kamioira aldatzea da. Zakar biltzeko modu berri hau martxan jartzen denen lanerako jende gutxiago beharko da. Izan ere, katnioiko kabinatik bertatik langile bakarrak ordenadore bidez egingo du lana. Gainera, kaleetan ere kontenedore gutxiago egongo dira.

Kontenedoreak Inugitu behar ez direnez, zarata ere ez da hainbestekoa izango eta usain txarrak ere sahistuko dituzte.



Oraingo plastikozko kontenedoreen ordez, metalezko ontziak jarriko dituzte.

Datorren astelehenean bertan hasiko dira metalezko kontenedore berriak jartzen. Eta aurrerago bilteta mota hau lurrazpiko bilketarekin osatzea da helburua.





## Elgoiharko 20 taldek hartu zuten parte presoen aldeko martxan

Euskal Herria zeharkatzen ari den presoen aldeko martxa Elgoibarrera iritsi zen astearte eguerdian. Hetriko kaleak zeharkatuz lekuko aldatetak egin ziren, guztira 20. Lekukoa hainbat kultur eta gizarte taldeetako ordezkariak eta euskara alorrekoek eraman zuten, besteak beste. Kaleetan presoen aldeko ohivak eginez pasatu ostean, plazara iritsi ziren eta bertan Haritz Dantzari Taldeko kideek Iekukoa eskuan zutela agurra dantzatu zuten. Martxa Elgoibartik Altzola aldera abiatu zen eguerdiko 15:00ak inguruan.

## • Elgoibarko farmaziek bat egin dute Gobernu Zentralaren neurrien aurkako grebarekin

Joan den asteartean, hilaren I In, Gipuzkoako farmaziak bi orduz itxi zituzten Gobernu presio planen aurka protesta-tzeko. Gobernu legearen arabera, farmazietan errezetarik gabeko medikamentuak merketu egin beharko lituzkete. Elgoibarren goardiako farmaziak izan ezik, gainontzekoek bat egin zuten grebarekin. Protesta honen bidez, Osakidetzari beraiekin bat egitea eskatu zioten, bestela sendagaiak ordaintzeko errezetak onartuko ez dituztela esanez.

## • Lurrari kalte egiten dioten eraikunza handiak geldiarazteko sinadura bilketa

Apirilean ehun sinadura sinbolikorekin 'Lurra' izeneko agiria kaleratu zen. Agiri honekin martxan jarri dute azpiegitura erraldoien eta supermerkatuen eta antzeko entikinen proiektuak atzeratzeko kanpaina. Agiriak jende askoren atxikimendua jaso du, eta sinatzaileen helburua Euskal Herriaren etorkizunerako herritarrek zein eredu nahi duten eztabaidatzea da. Sinadurak biltzeaz gain, ekimenak herriz herri bultzatzeko taldeak antolatu nahi dituzte bultzatzenilek. Elgoibarren ere sinadurak biltzen ari dira eta horri buruzko informazio gehiago jaso nahi duenak honako telefonoetara dei dezake: 945 25 01 47 / 656 79 01 06



## Atxutxiamaiak San Fermin Txiki Eguna ospatu zuten

Azken urteotan, uztailaren 7a iristearekin batera egin ohi duten bezala, Atxutxiamaiak Begirale Taldekoek eta udaleku irekietako haurrek San Fermin Txiki Eguna ospatu zuten joan den ostiralean. Udaletxeko halkoitik pregoia irakurri ostean, txupinazoa bota eta entzierroan korrika egin zuten txikitxoek herriko kaleetan. Ondoren, Plaza Handian Irunasoko ponien gainean ibili ziren txikienak eta gaztetxoek zezentxoak toreatu zituzten. Urrutitik bada ere, Iruñeko San Ferminak gogoratu zituzten haurrek zapi gorria lepoan zutela.

## Altzolako 'Artxingas' elkartearen 25. urteurrena ospatu dute

'Artxingas', Altzolako soziedadeak zilarrezko ezteiak bete ditu eta hori ospatzeko bazkaria egin zuten bertakoek pasa den asteburuan.

Guztira 26 lagun bildu ziren. Meza Nagusia izan zuten Altzolan eta ondoren bazkari ederra egin zuten. Menua paella eta haragia izan zela esan digute. Bertako bazkidea den Juan Epeldek honako hau ere esan digu: "Oso ondo pasa genuen eguna. Ea 50 urte betetzen ditugun".



# Diputazioak eta Ur kontsorzioak 1.950 milioi pezeta eman dituzte Priaga auzoan ur depuradora jartzeko

Elgoibarko eta Eibarko kolektoreekin batera Deba ibaia garbitzeko proiektua osatuko du

**D**iputazioak eta Ur Partzuergoak 2000. urterako egin duten hitzarmenaren arabera, beraien aurrekontutik 1.950 milioi pezeta bereiztuko dituzte Elgoibarko Arriaga auzoan ur depuradora bat jartzeko. Apraiz baserriaren, Azkoitirako bide berriaren eta Arriagako industri-gunearen aldamenean jarriko dute eta guztira 30.000 m<sup>2</sup> izango ditu. Aldundia lujabeekin harremanetan jarri da eta lanak 2001 urteko udaberrian hasi nahi dituzte.

Arriagako ur depuradoraz gain Foru Aldundiak eta Ur Partzuergoak beste hainbat proiektu jarri nahi ditu martxan aurten. Horien artean daude Elgoibarko eta Eibarko hondakin-urak hatzeko jarri behar diren kolektoreak. Ur zikinak biltzeko eta garbitzeko azpiegiturak 1.950 milioi pezetako kostua izango dute. Erdia ur Partzuergoak ordainduko du eta gainontzekoa Eusko Jaurlaritzak.

## Deba ibaiko urak zikin

Ur depuradora eta kolektoreak eraikitzea ezinbestekoa da Deba ibaia garbi mantentzeko eta garai bateko itxura berreskuratzeko. San Prudentzion eta Deban depuradora bana jarri dituzte eta horiek aurrerapausoak izan badira ere oraindik asko omen dago egiteko. Eskortatza eta Bergara artean ura oso kutsatuta omen dago adituen arabera, Maltzagara bitartean kalitatea hobetzen bada ere, Elgoibarko partean berriz ere zikinago dago. Mendaron, aldiz, ibaian aingerak, korrokoiak eta platusak ere ikus daitezke. Bestalde, Ermua eta Maillabiko ur zikinak, esaterako, Deba ibaira isurtzen dituzte eta herri hauetan inolako neurririk hartu ezean alfenikakoa izango litzateke Debabarreneko eta Debagoieneko gainontzeko herrietan egindako ahalegina, ibaiko urak zikina jarraituko bailuke.

Europar Batasunak 2001 urterako 15.000 biztanletik gorako herrietan depuradorak jartzea agindu du. Elgoibar biztanlez txikiagoa bada ere, Urruzunoko depuradoreekin agindu hori beteko du.



*Apraiz baserriaren, Azkoitirako bide berriaren eta Arriagako industri-gunearen aldamenean jarriko dute depuradora.*

## Udala Karakaten parke eoliko bat eraikitzearen aurka azaldu da

Eusko Jaurlaritzak 38 haize errota jarri nahi ditu frukurutzetatik Karakatera artean

**E**usko Jaurlaritzak Irukuru-tzeta eta Karakate artean parke eoliko bat jartzeko asmoa omen du. Proiektu hau aurrera aterako balitz besteak beste Elgoibarko parajeak kaltetuko litzuzke. Hori dela-eta, Elgoibarko Udala Azkoitia, Bergara eta Sorluzekoarekin batera plan honen aurka agertu da.

Bergarako eta Sorluzeko Udalen Eusko Jaurlaritzari ingurune hori babestutako biotipo izendatzea eskatu diote, izan ere, balio historiko zein naturala dauka. Elgoibarko Udalean ere eztabaidatu dute gaia eta parke eolikoa ez egiteko neurriak hartuko dituzte.

Guztira 60 metroko altuera du-

ten 38 aerogeneradore jarri nahi dituzte, eta tresna hauen betebeharrak haize bidez energia sortzea da. Ekologisten esanetan, hauek eraikitzeak ingurunea itsusituko luke, eta bistara gaizki emateaz gain ateratzen duten zarata ere oso handia omen da.

Talde ekologistak ezezik Udala ere proiektuaren aurka dago, beraz, ikusiko da aurrerantzean parkea eraikiko den ala ez.

Udaletik adierazi dutenez, "gu ez gaude energia berrien aurka, baina ez dugu nahi gure ingurua, hau da, Karakate, suntsitzea. Horrelako egitasmoen aurrean borondatea eta globalizazioa soberan daude".



### Seberiano Aiastui

### "Elgoibarreti pasatako urteei esker eutsi nion euskarari"

Aretxabaletan jaio zen Seberiano Aiastui orain dela 86 urte. 17 urterekin etxetik kanpora joan zen. Artean 19 urte zituela Elgoibarko Pilar ikastetxean egin zituen bi urte irakasle lanetan. Gero Misiolari moduan makina bat herrialde eta kultura ezagutu ditu. Orain Argentinako Chaco basoan bizi da, Comandancia Frias auzunean. Noizean behin jaioterrira itzultzen da hemengo txokoak bisitatzera, eta oraingo bidaia Elgoibarrera osteratxoa egiteko aprobe txatu du. Gaztetako garaiak gogoratzeaz gain, garai hartan bere ikasle izan ziren hainbat elgoibartarrekin tertuliatxoa egiteko parada ere izan zuen. Garai zaharrak gogoratzeko eta bere oraingo bizimoduari buruz zertxobait jakin nahian berbetalditxo bat egin genuen Seberiano Aiastuirekin.



Seberiano Aiastui Elgoibarko Pilar ikastetxeko irakaslea izan zen bi urtez.

- 19 urte zenituela etorri zinen elgoibarrer?. Irakasle ezta?

1933an etorri nintzen, orain dela 67 urte. Pilar Ikastetxean bi urte egin nituen eta gero soldadutza kontuak zirela eta alde egin behar izan nuen. Oraindik izango da norbait ni ezagutu ninduen.

- Noia gogoca Lzen cii•tuzu Ei-

Hemen egin nituen nire lehenengo irakaspeneak eta hemen igarotako urteel esker eutsi nion nik euskarari. 17 urte nituela Euskal herritik kanpora joan eta erdaldunen artean ibili nintzen-eta. Esaten dute lehenengo maitasuna beti ondarrean gelditzen dela eta niri ere hala gertatu zait Elgoibarrekin, barnean daukat, une atseginak

igaro baintuen hemen.

- Zule ikasie izanciakoak gogoz.

Bai, izen batzuk oraindik gogoratzen ditut. Baserri auzoetik eta herritik bertatik etortzen ziren mutikoak eskolara. 15 edo 16 urtera arteko ikasketak egingo asko zen garai hartan. Astelehenetik ostiralera, goiz eta arratsalde izaten genituen eskolak, ostegun arratsaldetan hartzen genuen jai, eta inoiz ikasleekin joan izan nintzen mendi aldera.

**"Lehenengo maitasuna beti geratzen da ondarrean, eta nik Elgoibar barne barnean daramat"**

# GAZTAROKO URROITZAPE \AK

## - Hemendik atzerrira joan zenen.

Afrikan 12 urte eman nituen, erakusle lanetan. Gero berriz itzuli nintzen, izan ere, han bazen nahikoa apaiz. Ondoren, Argentinako bi lagun etorri ziren Eskoriatzara, eta haiek esan zidaten Argentinako goialdeko Chacon probintzian bazegoen apaizen beharra. Han konturatu nintzen ez zegoela ez apaizik ez mojarik, eta meza gertuen ematen zuten lekua 107 kilometrorera zegoen, gainera noizbehinka baino ez zen izaten.

## - Noiakoa da zu bizi zaren lekua?

Han dena basoa da, eta base-txeetan bizi da jendea. Baina etxe batetik bestera kilometro asko dago. Ni inor ikusi gabe 35 kilometro ibilia naiz basoan. Bideak ere hala-moduzkoak dira.

## - Ura omen da zuen behar larriena.

Orain dugun arazorik handiena urarena da. Euria egiten badu ere, ez dago ur hori non jasorik. Nik beti esaten dut Jainkoari ez eskatzeko ura bidal dezan, lehen ere bidaltzen du nahikoa baina ezin da inon batu. Teilatupean osinak jarriz gero urtebeterako nahikoa ur batu daiteke. Indioek

nahiz eta ur hobea eduki, beraiantzat bertan dagoena da onena. Edozein ur hartzen dute, nahiz eta lokatza eduki, edo ganaduek edaten dutena izan... Ez zaie buruan sartzen horrelako urak gaitz asko dituela.

## - Zein lan egiten duzu Argentinan?

Ebangelioa zabaltzen dut eta mezak ere ematen ditut. Apaizak urriak dira eta bideak luzeak, beraz, igandero joaten

## "Ebangelioa zahaltzen dut Argentinako Chacon Tohintzian eta mezak ere ematen diltut"

naiz auzo kaskar batetik herri txiki batera eta bien artean 107 kilometro daude. Gainera, hilean behin beste herri handitxoago batera ere joaten naiz.

## - Zein ezberdintasun aurkitu dituzu Argentina eta Euskal Herriaren artean?

Pobrezia da nagusi ni nagoen zonatdean. Adin txikikoen zentro bat daukagu, eta egunero 160 laguneri ematen diegu jaten. Ez

dago han hemengo aberastasunik, baina beherengo mailan ez daude, okerragoak ere badira Amerikan bertan.

## - Hezkuntzan ere bada ezberdintasunik, ezta?

Inork ez ditu orain arte bukatu zazpi urteko ikasketak, eta orain jarri dute oinarrizko hezkuntza, 9 urtekoa. Hala ere, bada nahikoa oztopo. Basartean badira eskolak, baina batetik bestera distantzia handia dagoenez zaila da haurrak elkartu eta maila guztiak ematea. Hezkuntza oinarrizkoa da, bai hemen eta bai nonahi.

## - Berriz itzultzekotan etorri ome- Tara Euskal Herrira.

Ez dut aparteko herriminik izan kanpoan ibili naizenean. Barruan daukat euskara eta Euskal Herria. Gustura etorri naizen arren, berriz itzuliko naiz, premia handia baitaigo han.

## Zer esan nahl zenieke garai batean ezagutu zenituen elgoibartarrei?

Oroimen ederra daukat. Orduko aurpegiek eta orduko jendeak oraindik badute nire maitasuna, eta barkamena eskatu nahiko nieke noizbait gaizki egin banuen nire lana.



*Duela 67 urte bere ikasleak izandakoekin egoteko aukera izan du Seberianok Elgoibarrera egin duen bisitaiditxoan.*





# ETA ZU <, LLR DIOZU?

## Zaintzen al duzu zure itxura fisikoa?

Garai batean edadeko gizon gehienak txapela buruan eta bas-toia esku artean zutela ikustera ohitu ginen. Emakumezko nagusiak, berriz, arropa beltzak janzten zituzten eta buruan zapia erabili ohi zuten. Gaur egun aldiz zaharren irudia piskanaka aldatuz doa. Hiritartu egin dira eta nagusiek beraien irudia gero eta gehiago zaintzen dute, bai janzkera aldetik eta baita fisikoki ere. Denbora gehiago eskaintzen diote beraien burua zaintzeari, eta gero eta aiton-amaña dotoreagoak ikusten dira kaleetan. Guk Elgoibarko edadetuei galdetu diegu ea beraien irudia zaintzeari garrantzia ematen al dioten.



**Rosa Aristondo**

64 urte

Bai. Piska bat esforzau ein bihar da norbere burua ondo preparatzen. Horretarako gaztien anbientera sartu eta eurretan fijaszen naiz. Badia atentziva ematen dien zaharrak ere, baina gaztiei kaso eitxia nahixao izaten dot.



**Gabriel Sabando**

63 urte

Danerako jendea egongo da, baina nire us-tez piska bat zaintzea beharrezkoa da. Orain gauza asko beharko nituzke nire itxura mantentzeko, baina kalera irten eta ibiltzen saiatzen naiz eta horrek nire gorputzari on egiten diola igartzen dut.



**Manoli Azpeitia**

71 urte

Ahaleginak eitxen ditzugu itxuria gordezten. Neretzat oso inportantia da garbitxasuna eta normal jatia. Modiari ez diogu askorik begiratzen, gustatzen jatana jazten dot, baina erropiak ere badaka zeresanik norberan itxurian.




**nir• 11111 Feli Errasti**

73 urte



Baietz uste dot. Erropiari baino jatekuari gehixao beiratzen diot, beti garbi jaten ahalegintzen naiz. Kanpokua beti lehena-go ikusten dala danok dakigu, baina egia esanda nik barrukuari gehiago begiratzen diot.



**Emilio Rumayor**

71 urte

Askorik zaindu gabe, normal xamar aterazten naiz kalera. Piska bat txukun joanez gero nahikoa dela uste dut. Dena den, igandetan eta egun berezixetan itxura gehiago zaintzen dut eta arraroak izan gabe arropa hobek janzten saiatzen naiz.



# Minbizia

*Azken urteotan ikerketa asko egiten ari dira gaixotasun honi aurre egiteko bideak aurkitu nahian. Baina jakin badakigu ikerketek denbora luzea behar izaten dutela azken emaitzara iritsi arte. Gainera, baliteke lortutako emaitzak mñnbzr guztientzat ez balio izatea. Beraz, guk minbizia prebenitzeko hainbat aholku emango dizkizuegu.*

Ez erre. Erretzailea izanez gero, ahalik eta azkarren erretzeari uztea komeni da. Tabakorik erretzen ez baduzu, berriz, ez probatu inoiz zigarrorik.

Alkohola edaten baduzu, kontsumoa ahalik eta txikiena izan arte gutxitu. Ez edateak ere ez dizu kalterik egingo.

Egunero fruta eta barazki freskoak jan. Zerealak ere sarritan jatea ona da.

Eguzkitan denbora asko ez egon. Udara dela kontutan hartuz gero hondartzara goazenean arretaz ibiltzea komeni da, eta baita babes kremak erabiltzea ere.

Pisua kontrolatu. Horretarako, ariketa fisikoa egitea eta grasa asko duten janariak gutxitzea da egokiena.

Badira hainbat sustantzia minbiziaren sortzaileak direnak. Horien inguruan argibideak eta arauak eman ohi dituzte sarritan, eta zorrotz bete behar dira. Segurtasun eta osasun oharrak kontutan hartu.

Gorputzean kozkorren bat edo behar bezala zikatritzatzen ez den zauriren bat somatuz gero, medikuarengana joan. Berdin da gorputzeko zein ataletan izan. Formaz, kolorez edo tamainaz aldatzen den zauri edo ubelduraren bat edo ezohiko odol jariorik baduzu ere gauza bera egin.

Eztula, sabel-hustutzean aldaketak, ezohiko pisu-galerak... denbora luzean izanez gero, medikuarengana joan.

Noizean behin bularrak aztertu. 50 urtetik gorako emakumeek horretarako espreski prestatutako mamografia programetan har dezakete parte.



ERREZETIA · ERREZETIA



Gloria Pere 116

## Gazpaboa

**OSAGAIK:** Kilo bat tomate (helduak), 2 arrautza egosi, 100 gr. urdaiazpikoa, 240 gr. atun (latakoa), berakatza, olio eta gatza.

### PRESTAKETA

Udarako jateko erraza eta freskoa prestatuko dugu gaur. Lehenengo lapiko batean ur asko egosten jarriko dugu eta ura bor-bor hasten denean tomateak botako ditugu bertara. 2 minutuz uretan egiten eduki eta atera ostean, tomateei azala kendu. Ontzi batean zati txikiak egin eta berakatz piska bat, olio goilarakada bat eta gatz apur bat gehitu ostean, trituru egingo dugu. Ondoren, jateko ordura arte frigorifikoan edukiko dugu. Mahaira zerbitzatzeko gazpatxoarekin batera, arraultza egosiak, urdalazpikoa eta atuna jarriko ditugu, bakoitza ontzi banatan eta txiki-txiki eginda. Honela bakoitzak aukeratuko du zein osagai nahi duen gazpatxoari laguntzeko. On egin!

L1  
C  
Cr  
I\*

t

rA  
U.

Ca  
U.

ERREZI"



# SA DARTOLOMIETAÑ

## AFALTZEKO

### ENTSALADAK

- Toletxe entsalada
- Txatka entsalada
- Entsalada mistoa

### RAZIOAK

- Txanpiak
- Txorixo egosia
- Oilaskoa berakatzetan
- Konejoa piper bercieekin
- Pottak (Txapiro txikiak)

### BOKATAK

## BAZKALTZEKO

Menua -2.000 pta

2. Menua -3.000 pta

*Enkargatu!!*

*eta gainero... MARTXA!!*

Txiki egunerako  
kamisetak  
salgai!

*Mahatsa  
kamisetan*  
10.000 pta

1.000 pta.

**rio**

**TXE**

**Eit** ELGOIBARKO IZARRA  
K TLP, ELKAATEA

## 31LBRO EXPVSS

## Oporretan zatoz gurekin

*Udako oporretan pentsatzen ari baldin bazara, gurean aurkituko duzu bi daiatzeko eskaintzarik egokiena.*

• **PLATJA DE ARO, TOSSA DE MAR, LLORET DE MAR, BLANES** eta **PINEDA DE MAR-en** 3 izarreko hotelean %50eko deskontua 2. pertsonarentzat uztailaren zehar.

• **RMERA MAYA, MEXIKO** eskaintza berezia talde desberdinentzat: ikasleak, nagusiak, sustapen ekintzak eta turismo soziala. 7 gau dena barne **127.500 pta.**

• **EIUALDE ERTAINA** irteerak uztailaren 1 8an eta 25ean. 8 egun 5 izarreko hotelean, **99.900 pta.tik aurrera.**

• **MENORCA** 7 gau pentsio erdian 3 izarreko hotelean. Uztailaren 26ra arte, **64.800 pta.**

• **LISBOA** uztaila eta abuztua. Irteerak egunero Bilbotik, **64.900 pta.tik aurrera.**

• **PRAGA-BUDAPEST** irteerak Bilbotik. 3 gau Budapestean eta 4 gau Pragan 3 izarreko hotelean, **74.900 pta.tik aurrera.**

• **TUNEZ** hegaidi bereziak astelehenetan Bilbotik. 8 egun, ohea eta gosaria. 3 izarreko hotelean, **64.900 pta.tik aurrera.**

• **TXINA** 7 egun New Otani luxuzko hotelean, **191.200 pta.**

• **GREZIA** irteerak uztaifaren 17an eta 24an. 7 gau Atenasen ohea eta gosariarekin, **63.900 pta.tik aurrera.**

• **SIZILIA** estantzia 8 egun ohea eta gosariarekin, **69.900 pta.tik aurrera.**

• **EGIPTO** 8 egun, horietatik 3 kruzeroan, **119.900 pta.tik aurrera.**

• **DENIA** Port Denia Hotela\* uztailaren 15etik abuztuaren 4ra arte **8.450 pta. P.E.** 1. umea doan eta 2.ak %50eko deskontua.

• **ESKOZIA** uztafietik irailera asteartero irteerak. Eskozia, gazteivak eta lakuak 8 egun, **114.900 pta.tik aurrera.**

• **IBIZA** azkeneko plazak irteerak abuztuaren 3, 10 eta 17an. 7 gau pentsio erdian, **98.900 pta.**

**Ordutegia:** Goizez 9:00etatik 13:00era; arratsalde 15:30etatik 20:00etara,

**Zatoz eta kontsultatu!**

**31L3F10 EXPeSS**  
Foruen enparantza, 3  
Tel: 943 74 39 12  
Faxa: 943 74 44 24

## Jose Bustondo Aizpiri

(1898-1978)



• 1898ko uztailaren 6an jaio zen San Lorentzo bailarako Maiorta baserrian. 9 anai-arreba izan ziren, bera zen hirugarrena. Gaztetako ikasketak San Lorentzoko eskolan egin zituen 11 urtera arte.

• Familia handia zen eta Josek, eskola utzi eta gero, baserriko lan klase guztiak egin zituen etxeko-ei laguntzeko. Mutil egin ondoren, meza ostean, San Lorentzon esku pilota ikustea gustatzen tz,aion. Madalatik Azkaratera egiten ziren lasterketa apustuak ere gustatzen zitzaizkion, garai hartan oso famatuak ziren gainera.

• Madarixako bidea egiten ibili zen. Geroago "alleria" prestatzen egin zuen denboraIdia. "Alleria"n egitea barakoak, upelak edo otarrak egiteko gaztaina egurra prestatzeari cleitzen zitzaion.

• SoIdadutzatik libre geratu zen baina hala ere, Afrikara bidali zuten urte eta erdirako. Bitxikeria moduan, Afrikan zegoen bitartean saltzaile bat "bizcochos de Menclaro" garrasika entzun zuen eta guztiz harrituta geratu zen.

• Auzo ondoko Upai Goiko baserriko Josefa Etxanizekin ezkondu zen. 5 seme-alaba izan zituzten: Frantziska (t), Domingo (t), Antonia, Jose eta Vicenta. Suihiak berriz, Vicente Maiztegui eta Jose San Martin dira.

• Andrearen baserrian maiorazko bezala hasi zen eta emaztearekin batera gogor egiten zuen lan. Sarritan joan zen, Josefarekin batera, kartoizko zapata kaxa janariz bete eta Abadiño, San Antonio edo Arratera. Herriko feriara ere urte askotan etorri zen. San Lorentzoko jaietan etxean gonbidatuak izatea gustatzen zitzaion.

• Familia hasi eta ongi bizi izan zen gizon patxaroso hau. Lagun artean kontuak esan eta hizketan egitea, ehiza, euskal kantzak eta kirol jokuak gustatzen zitzaizkion.

• 1978ko uztailaren 14an hil zen, 80 urte zituela.

Juanito Gorostiza



Pedro Muguruza, 5  
Tel: 943 74 08 06  
20870 ELGOIBAR

Cr (50)

Urrutira deitu gabe bertakook segituan konponduko dizugu igogailua

t' 943 82 01 09

Faxa: 943 82 01 62

Indalezio Ojanguren 2, behea

• 20600 EIBAR





sisss  4

All ste honetan bi erretratu zahar argitaratu ditugu, biak ala biak futbolarekin lotutakoak. Bata, **Amaia Mujikak** laga digu eta **Ana Mr Iruretak**, bestea. Ezkerreko argazkian agertzen diren hiru mutiko hauek, Realeko kamiseta eta guzti, **Asier Arzamendi, Urtzi Etxabe** eta **Mikel Arzamendi** dira. Plaza Txikian ateraratakoa da


duela 18 urte, gutxi gora-behera. Amaiak esan digunez, Urtzi ezetik beste biak oso Realzaleak dira orain ere.

Honako hauek dira bigarren argazkian agertzen direnak: Ezkerretik eskumara: **Ignacio Mugerza, Xabier Argarate (\*)**, **Iñaki Gabilondo**. **Paeo Mugerza, Felix Ayesta, Vicente Uncilla** eta **Jesus Rementeria**.



## T. URTEURRENA

1999ko uztailaren 20an, 73 urte zituela hil zen **Ma TERESA LARREINA IRIARTE**ren oroimenez **URTELIRRENEKO MEZA** izango da Parrokian larunbatean, hilak 22, arratsaldeko 19:00etan. Joaten zaretanoi eskerrak alde zurretik.



# Eloka 1E '913221 .5a3GDOT pezetako irabazia Usr ERfi J, della 2a, 12En

Batzarrean bazkideen kuotak 2.000 pta. merketzea erabaki zen

‘C.D Elgoibar’ Elkartek pasa den astelehenean, hilaren 10ean, egin zuen urteko batzarra Kultur Etxean. Amaitu berri den denboraldiko balantze ekonomikoaren irakurketa eta onarpena eta 2.000/2001 denboraldiko kuotak izan ziren batzarreko gai nagusiak. Diru kontuan kirol arloan baino hobeto bukatu du urtea elkartek eta 1.596.871 pta.ko irabazia izan du. Diru sarrerei dagokienez, 24.801.276 pta. sartu dira elkarteko dirukutxan eta gastuak, berriz, 23.204.405 pta.koak izan dira.

Julen Konde, ‘C.D. Elgoibar’ko presidentea esan zuenez, "datorren denboraldiko aurrekontuan aurten



*Julen Konde presidentea buru duen zuzendaritzak adi-adi entzun zituen bazkideen galderak eta proposamenak.*

izan dugun gastu antzerakoa izatea espero dugu. Hala ere, diru-sarrera gutxiago izango ditugula eta beldur naiz. Diru-sarrerak mailarekin zerikusi handia

dute eta ‘Haundia’ mailaz jaitsi denez, diru kopuru gutxiago jasoko dugu. Aurten adibidez, 5 milioi eta erdi pezeta gutxiago jaso ditugu 1998/1999 denboraldiarekin alderatuz".

### Bazkideen kuotak merkeago

Bestalde, urteko kuotak merketzea erabaki zuten batzarrean hurbildu ziren bazkideek. Hiru proposamen hartu ziren kontutan batzarrean, kuotak 2.000 pta. merketu, 3.000 pta. merketu edo 5.000 pta. merketu. Botazioa egin ostean, hurrena denboraldian bazkideen kuotak 2.000 pta. gutxiago ordaintzea erabaki zuten. Proposamen honek 18 botu lortu zituen. Kuota 3.000 pta. jaisteak, 8 botu eta 5.000 pta. gutxitzeak 4 aldeko botu besterik ez zituen izan.

## Loren Galeano Maundirko jokalaririk iPabazi sar70

### ● ● Hidoturisten irteera < uztailaren lean

Elgoibarko tagun Taldeak antolatuta, datorren domekan, hilaren 16an, izango da 00[111. zikloturista irteera. Goizeko 9:00etan Txankakua zubitik abiatu eta honako ibilbidea egingo dute txirindulariek. Ibilbide luzea: Elgoibar, Soraluze, Bergara, Antzuola, Deskarga, Zumarraga, Orj maiztegi, Idiazabal, Segura, Zegama, Otzaurte, Altsasu, Olazagutia, Zalduondo, Ozeta, Landa, Arlaban, Eskoriatza, Artasate, Bergara, Soraluze eta Elgoibar. Guztira 154 km. dira. Ibilbide motza: Elgoibar, Soraluze, Bergara, Antzuola, Deskarga, Zumarraga, Ormaiztegi, Idiazabal, Segura, Zerain, Aztiria, Telleriarte, Udana, Bergara, Soraluze eta Elgoibar. Guztira 100 km. dira. Nahi duen edonork har dezake parte.

Haundi'ko jokalaririk enegulanenari ematen zaion Idarraga kafeak 3. saria' Loren Galeano jokalaririk eigoibartarrak irabazi du 1.999/2.000 denboraldian. Denboraldi hasieratik amaierara arte, hainbat pertsonak, tartean 'Haundirko entrenatzaileak, zaletuek eta klubeko kideek, jokalaririk bakoitzari puntuak eman dizitote astero zelaian erakutsitako jokoaren arabera. Denboraldia amaitu eta puntu guztiak batu ostean, Loren Galeanok eskuratu du 'Idarraga saria', 35 punturekin. Bigarren postuan Aranberri sailkatu da, 33 punturekin eta hirugarren, berriz, Castro jokalaria izan da, 29 punturekin. 'Club Deportivo Elgoibar'ek denboraldi amaieran egiten



*Ezkerretik hasita Jabier Idarraga, Loren Galeano eta Julen Konde, 'C.D. Elgoibarko lehendakaria.*

duen afari aurretik egin zen sari banaketa. Afaria Harzubi jatetxean egin zuten eta kirol arloan denboraldi kaskana izan bada ere giro alaia izan zela nagusi aipatu digute.



## Ibai Etxabek ipahazij Ila Eikarteak antolatutako Arraifi a Irabazleak 8 piezako aldea atera zion bigarrenari

**D**ebako itsa-sadarrean (Danobat lantegiaren parean) jokatu zen pasa berri den igande goizean, hilaren 9an, 'La Union' Elkarteak antolatzen duen Arrantza Txapelketa. Izena eman zuten 8 lagunek primerako eguraldia izan zuten arrantzan egiteko. Sailkapen nagusian Ibai Etxabe gaztea erraztasun osoz nagusitu zen, bigarren sailkatuari, Asier Ajuariagerrari, alegia, 8 arraineko aldea atera baitzion. Ibaik 11 arrain saskian sartzea lortu zuen. Guztira 2.400 gramo batu zituen. Alerik handienak Ibaik eta Asierrek hartu zituzten, biek ere 650 oramoko arrain bana arrantzatu baitzuten.



*Arrantza Txapelketa parte lortu zuten arrantzaleak jasotako sariak eskuan dituztela.*



*Ibai Etxabe irabazlea, eskuman, Patxi Astigarraga, 'La Union' Elkarteako presidentearrekin.*

ten. Bi arrantzale gazte hauen atzetik Martin Garagarza sailkatu zen, 3 arrainekin. Laugarren postua, berriz, Nicolas Etxabek eskuratu zuen, txapeldunaren aitak, hain zuzen ere.

## Bailarako Futhel 7 Txapeiketa azken txanpan sartu da Finalerdiak domekan, hilaren 16an, jokatu dira Mintxetan

**p**asa den asteburuan final zortzirenak jokatu ostean, Bailarako Futhel 7 Txapelketa azken txanpan sartu da. Sailkatzea lortu duten 8 taldeek bihar, hilak 15, jokatu dituzte final laurdenetako partiduak Eibarko Unbe futbol zelaian. Talde elgoibartarrei dagokionez, zortea ez dutela lagun izan aipatu behar da. Izan ere, final zortzirenetako partiduetan talde elgoibartar bat haino gehiago geratu zen kanporatuta penalti jaurtiketetara iritsi ostean, hau da 'Lojantzi' eta 'Spartak Pitxote' taldeen kasua, adibidez. Honako hauek dira final laurdenetako partiduak jokatu dituzten taldeak: C.S.K. Awayer - Ford Lerun, Faustino VII - Astigarraga Kirolak, Celta Del Vino - Antzarrak eta Paston Pila - Palpadores. Partiduak goizeko



*38 taldek hasi zuten Futbol Txapelketa. Bihar, hilak 15, final laurdenetak jokatu dira Unben.*

10:00etan hasiko dira. Partidu hauetako irabazleek Finalerdiak jokatu dituzte igandean, hilaren 16an, Mintxetan goizeko 11:00etatik aurrera. Finala, berriz, hilaren 20an jokatu da Unben.

### ALIVISAM11~1

#### Esku pilota

Sigmake Txapelketa

Nagusiak

AngellEneko 22 - Ubera/Katei 16

Karral/Lander 18 - UlazialArizmendi 22

Alebinak

TxurrukaK. Arrizaba[aga 18 -

I. Ugalde/O. Txurruka 7

#### Futbol 7 Txapelketa

Paston Pila 3 R.oso Takata B. 2

Astigarraga Kirolak 1- Artetxe 0

Bar Martin 2- Hashneken F.C. 4

Litoplasma 3 - Ke+Da 2

Paston Pila 4 Inkision 1

Hashneken F.0.0 - Ford Lerun 7

Palpadores 3- Spartak Pitxote 2

Catique Pal Pique 3 C.S.K. Awayer 6

Faustino VII 4- Zer Ote? 3

Ge[ta Del Vino 2- Lojantzi 1

Astigarraga Kirolak 3- Grasshopper 2

Litoplasma 0 - Antzarrak 2


## Ibon Arregik bigarren urtez jarraian irabazi du San Bartolome jaietako kartel lehiaketa

Nagusien mailan zazpi lan aurkeztu dira eta haurrenean bederatz

Udaleko Kultura Sailak ezagutzera eman du San Bartolome jaietako kartel lehiaketaren irabazlea. Bigarren urtez jarraian Ibon Arregi elgoibartarrak aurkeztutako lan batek irabazi du lehiaketa. Iaz, "Ikaroren ikara" lanari esker irabazi zuen kartel lehiaketa Ibonek. Aurten, berriz, "Iturri muturra" izeneko lanari esker 66.000 pta.ko saria es-

kuratu du. 15.000 pta.ko aipamena, berriz, Noemi Fernandezek "Sokamuturra 2.000" lanak eskuratu du. Nagusien mailan 7 partehartzailek aurkeztu dituzte lanak. 18 urtetik beherako kategorian 9 lan aurkeztu dira, eta guztiak irabazi dute saria. Kultura sailatik adierazi digutenez, "era askotako lanak aurkeztu dira, ordenagailuz egi-

nak, errotulagailuz,.. ez da estilo bat nagusitu". Epairenaikideak Alberto Gareia, Kokoeko Iehendakari ohia. Iriaki Raigoso, Kokoeko kidea, Miren Arozena Udal Lihurutegikoa eta Marihel Vazquez, 'Egur' Arte tailerreko kidea izan dira. Sari banaketa abuztuaren 23an, San Bartolome hezperan. udal txeko Areto Nagusian izango da.



23 urte

-Bigarren urtez jarraian irabazi duzu kartel lehiaketa. Kartelgintzari trukoa hartu al diozu ?

Trukoa ez, pasa dan urtian ondo urten jatala ikusitxa, aurten ere aurkeztia pentsau naban, besterik gabe. Iazkua aurkeztu naban lehen

kartela izan zan, baina urtian zihar pare bat kartel lehiaketetan, Irunen eta Eibarren, aurkeztu ditzut kartelak. Kartelien buru helani sartzeko asti nahikua topatzia izaten da zailena.

-Iaz Icaroren eskultura hartu zenuen kartela egiteko aitzakitzat, aurten, berriz, San Frantzisko iturria. Zergatik aukeratu duzu?

Ingurune politxa dala iruditxu jatan. Gainera bi monumentu daoz bertan; Kultur Etxia eta San Frantzisko itxurixia bere eskultura eta guzti. Bi ikur horiek jokua ematen zaben eta sokamuturra ere bertatik pasatzen danez danak batu nitxuan kartelien.

-Oraingoan ere akuarelaren aldeko apostua egin duzu, ezta?

Bai, hasieran ordenagailuz eitxia pentsau naban, baina pasa dan urtian akuarelakin ondo urten jatanez, berriz ere saiatzia erabaki naban.

-Elgoibarko jaien kartelean derrigorrez azaldu behar den elementu funtzeskorik ba al dago?

Ez dot uste. Hala ere, beti daoz henitxarrei eta epaimai-xari gehixao gustatzen jakozen gaixak; sokamuturra, jai girua, zapi gorrixa...

1. saria

2. saria

23 urte

-Kartel lehiaketa batera aurkeztu zaren lehenengo aldia izan al da?


Bai, hala izan da. Etxean animatu ninduten eta denhora librea nuenez lehiaketan aurkeztearabaki nuen. Akzesita irabazi nuela esan zidatenean ezusteko itzela hartu nuen, aurkezten nintzen lehen aldia izanik ez bainuen ezer espero.

-Zertan inspiratu zara kartela egiterako orduan?


Diseinu grafikoa ari naiz ikasten eta klasean erakutsi diguten metodoa jarraitzen saiatu naiz, hau da, jaiekin zerikusia daukaten motiboetan pentsatu, ideia hauekin bozeto edo zirriborroak egin... Kartela egitea haino, zertaz egin pentsatzea izaten da zailagoa. Liburutegira joan eta San Bartolome jaien inguruko argazkiak hegiratu nituen. Sokamuturra gai nagusitatzat hartu eta kartel arin hat, ikusteko erraza, egiteari ekin nion.

-Ordenagailua erabil duzu kartela egiteko, ezta?

Bai, lehenik eskuz egin nuen zirriborma eta ondoren 'Corer programaren bidez ordenagailuz egin nuen. Baliabide gehiago izango hanitu, erabiliko nituzke, baina daukadanarekin eta irudimenarekin egin behar aurrera.







Udako oporretan atzerrira bidaiatzea nahi zuten Sare Gurrutxagak eta Ane Barrenetxeak. Aukera ezberdinak aztertu ostean modurik merkeena auzolandegi batera joatea zela ikusi, eta horrela abiatu ziren ekainean Alemaniako Babaria eskualdera. Hiru aste bertan igaro ostean gure artera ekarri ditugu beraien esperientzia kontatzera.

## "Inglesa praktikatziaz gain lagun berriak ein ditxugu Alemanian"

ANE BARRENETXEA eta SARE GURRUTXAGA:

### - Nolatan Alemaniara auzolandegi batera?

ANE: Inglesa praktikatzia nahi gendun. eta termko auzolandegixetan lanak gogorak zian edo bestela ez zauan lekurik. Gainera, 18 urtetik beherakuntzat kanpo internazionaltan Alemania zan irtenbide bakarra, Babariako eskualdian egon gera, Alernaniako hegoaldian, eta hiru aste pasau ditxugu bertan.

### - Aurrez ba al zenekiten alemanieraz hitz egiten?

SARE: Jun gera alemana jakin gabe, eta hasieran piska bat estututa gaozen, baina auzolandegixa interturzionala zanez, han erabiltzen zan hizkuntza inglesa zan. Gainera, han ikusi gendun bazauala alemanez ez zakixan jendia ere. Mejjkana bat hazauan eta gu bere tint laguntza bat izan ginan, ikusi zabalako erderaz hitz egin zezakela gurekin.

### - Zein izan da zuen eginbeharra?

A: Herrixa sortu zaneke urteurrena ospatzeko Erta-roko ferixa bat antolau zaben, eta gure lana montajian eta herrixa txukuntzen laguntzia zan. Hasieran Irzokako puestuak montau bihar genitxuala esan ziguten, baina bertara jundakuan mantenimientuan ein gendun lana.

### - Can gogorra izan al da?

A: Egun batzutan bai. Gainera bertako langiliekin ein bihar izaten gendun lan. Egon zian egunak zortzi orduan ixa hitz egin gabe pasau genitxuanak. Beste egun batzutan, berriz, bi ordu lan ein eta beste seirak gora benira egoten ginan. Goizian elkartzen ginan eta lana banatzen zaben bertakuek. Hasieran saiatzen nan bixok talde berdian tokatzen, baina piskanaka ohitxu ginan, bakoitza talde batian egoten.

### - griguruko herriak ere bisitatuko zentuzten, ezta?

S: Hiru aste pasau ditxugu han, bi aste Ianian eta erdikuan deskansatzen. Asteburuak aprobetxatzen genitxuan bi ajatzeko. Estrasburgo, Praga... bisitau ditxugu. Alemania ingurura urtetzeko ondo gelditzen dan herrialde bat da. Erdiko astian, berriz, gertuko hirixetara jun ginan.

### - Kanpin denda handi batean egiten zenuten lo.

S: Suertia zakatenak etxe baten eitxen zaben lo, eta beste danok kanpin haundi baten. Kanpuan bi dutxa zaozen, jaixetako komunen tipokuak. Sukaldia, berriz, banuan zauan. Txandaka, egunian bi lagun geratzen zian etxia jasotzen eta jatekua preparatzen.

### - Cagun berri asko egin al dituzue?

S: Bai, 15 laguneko taldia zan eta lagunak eitxeko talde txikixa hoheto da. Oin zaila da harremanak mantentzia, baina internet bidez komunikatzekotan geratu gera. Gainera, beraietako bat (Turkua) beste auzolandegi baten zauan oin Leridan eta asteburuan gurekin egotera etorri zan hona.

### - Aurrez egonak al zineten auzolandegiren baten?

A: Ez, lehenengo aldixa izan da. Udalekuetan edo akademiaren baten bai, baina lanera aurten joan gara lehenengoz. Hiru aste eta gero errepikatzeke moduko esperientzia da la ikusi dogu. Datorren urtian berriz juttia espero dogu, eta ahal dala atzerrira. Espainia barruan badaude kanpo internazionalak, baina kanpora junda hobe.



..1.. ~trmikiitr~har tigunek Ilethw reingiwkin egin  
---tifutten-mantenimenditlanale---



111 JI /11

**FARMAZIAK**

- Egunez Gauez
- 15 Etxeberria Fernandez (Errosario kalean)
- 16 Etxeberria Fernandez (Errosario kalean)
- 17 Yudego Yudego
- 18 Zabaleta Zabaleta
- 19 Etxeberria Fernandez (Errosario kalean)
- 20 Zabaleta Zabaleta
- 21 Zabaleta Zabaleta '(eguerdiko 2ak arte)

**ESCALA:** Rekalde, 1  
Soraluze. Tel: 943 75 16 38  
**J. IGNACIO FERNANDEZ**  
Herriko enparantza 4,  
Garagarza. Tel: 943 75 61 42  
**ZABALETA:** Kalebarren, 9  
Soraluze. Tel: 943 75 13 84

**OKINDEGIA**  
16 igandea Befia Mercedes

**14 ostirala**

22:30 AIRE LIBREKO ZINEA  
"SoM con ikfrica"  
23:00 KONTZERTUA  
2 elgoibartarrek  
'Didjeridoo' instrumentu australiarra joko dute  
Gaztetxean

**11 larun ata**

22:30 AIRE LIBREKO ZINEA  
"Toy Story 2"

**16 igandea**

9:00 ZIKLOTURISTEN IRTEERA  
Txankakua zubitik  
Antolatzailea: Elgoibarko Lagun Taldea  
18:45 DANTZALDIA GELATXOREKIN

**18 asteartea**

10:00 JUBILATUEN EGUNEKO IRTEERA  
Plaza Handitik

18:45 DANTZALDIA GELATXOREKIN

**21 ostirala**

22:30 AIRE LIBREKO ZINEA  
"Murciagos"

Haur Eskola	943 74 21 41
ULI (FDA)	943 74 09 90
Herri Eskola	943 74 08 79
I.M.H.	943 74 41 32
nstitutua	
Arreiturre	943 74 80 19
Ezenarro (Meka)	943 74 80 19
Ikastola	943 74 44 41
Pilar Ikastetxea	943 74 13 31

**KOMUNIKABIDEAI**

BARREN	943 74 41 12
Ei Diario Vasco	943 74 40 73
Ei Correo Espatiol	943 74 10 82
Zazpiki Irratia	943 74 34 74
Egunkaria	943 30 02 28
Gara	943 31 69 99

**11 NE A**



Zuzendaria: Hugh Hudson.  
Antzezleak: Kim Basinger,  
Vineent Perez, Liam Aiken.

**"Solle con lifeka"**

Kuki GaiImano (Kim Basinger) izakera hezigaitzeko emakume ederra da. Italian bizi da bere seme Emanuelerekin batera, baina bizimoduz aldatzeko gogoia du. Paolo izeneko gizon bat ezagutu eta berarekin ezkondu ondoren, Afrikara alde egitea erabakiko du. Afrika moduko Iurralde basati eta ederrean bizimodua aurrera ateratzea zaila da, na sentimentu eta sentsazio beniak ere ezagutuko dituzte Afrikari esker, eta bizimodu berriari indarberrituta ekingo diote.

111 111 111 111 ..... 111111111 • Z WIZINE





## Lana

### • ESKAINTZA •

- Pertsona nagusi batekin bizitzeko norbait behar da. Etxean arratsaldeko 6etatik goizeko 10etara egoten da. w 943 74 06 96.
- Neska euskalduna behar da bi ume zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Yolanda (Dendako orduetan deitu). s 943 70 08 18
- Bi mutil gazte behar dira jaietan barran lan egiteko. tr 943 74 16 00.
- Abuztuan etxea zaintzeko pertsona bat behar dut. tr 669 17 01 81 (Juani).
- Neska bat behar da ume bat zaindu eta etxeko lanak egiteko. Deitu 2:00tik-13:30era eta 21:00etik aurtera. tr 943 74 28 93
- Publizitatea buzoneatzeko pertsona bat behar da. tr 943 74 35 44
- Pertsona arduratsua behar da adineko emakumea zaintzeko. tr 609 94 69 40 / 677 76 65 48 (gauetz).
- \*Emakumea behar da abuztuan arratsaldeko 16:00tik 21:00era Deban ume bat zaintzeko. rr 943 19 12 10
- Emakumea behar da abuztuan Deban bi ume zaintzeko 10:00tik-15:00era eta 17:00tik-21:00era. ts 696 09 79 46
- Neska behar da egun guztian zehar haurrak zaindu eta etxeko lanak egiteko. tr 943 74 45 57 (goizez) 943 74 36 97 (19:00etatik aurrera). Miren.

### • ESKAERA •

- Propaganda buzuneatzeko prest gauden bi neska gara. tr 943 74 46 27/ 943 74 12 21
- Neska eskaintzen da uztailen arratsaldetan lan egiteko. 943 74 06 75. Amparo (Arratsaldez)
- Neska euskalduna eskaintzen da partikularrik emateko, matematika etab. v943 74 11 34
- ♦ Neska eskaintzen da uztailen edozein postutan lan egiteko. tr 943 74 33 42

## Salerosketak

- Merkatu Plazan lokala traspasatuko nuke. Kondizio onean. Er 943 74 25 17
- Bi bizikleta ditut salgai. Bata mendikoa eta bestea. karreterakoa, Oso prezio onean. (19:00etatik- 22:00etara)...s. 943 75 51 47 (Jokin).
- Agirre taberna alokatzen da. P.M. Urruzuno kaleko 6an, ler 943 74 45 05
- Wolswagen autoa salgai. 4 urte ditu eta kanpinera joateko egokিতuta dago. s 943 20 04 17
- Seat 600 bat erosiko nuke. Ez zait inporta zein egoeratan dagoen. s 610 54 71 16 (Enrique)
- Egurrarekin berotzen den Herigon Franflin 82 tximinia, lasterketako bizikleta eta ispilu eder bat ditut salgai oso prezio merkean. • 943 74 17 15
- Garajea eta lokal komertziala salgai Mendaron, Azpilgoeta kalean. 40 m<sup>2</sup>. -re 943 75 50 26
- Astra GSI 16V txuria salgai, SS-AS. Aluminioko lantak, egoera onean. 19:30tik aurrera deitu. n• 656 73 29 85
- SS-AU Opel Corsa salgai. Egoera onean. ff 943 75 50 35 (Imanol)

## Etxebizilzak

- Pisia hartuko nuke alokairuan datorren ikasturterako. .lr 943 74 07 85 / 656 72 12 22
- Herri erdian pisua salgai. 4. solairua da eta ez du igogailurik. tr 943 74 02 69.
- Alokairuan dagoen pisu bat nahi nuke Elgoibarren. Presa dut. .rr 636 37 58 66

## Oharra

Merkatu txikirako oharrak asteazken eguerdia baino lehenago ekarri behar direla gogorarazten dizuegu.



• Zorionak tio Ion. Honezkero Zarautz puntatik puntara 'pateatu' ta gero txiki gel-dituko zitzaizun, ez?. Hernendik 'Gines' etara.

• Zorionak Karmelo Modamiori, igandean, hilak 16, 66 urte beteko dituelako. Ondo pasa eguna emaztearen eta seme-alaben partez.



## Garajeak

- Ikastola ondoan garaje bat daukat alokatzeko. s 943 74 28 24



• Astelehena ospatu arren aste guztian gogorau gera zure egunakin. Zorionak eta muxu handi bat. Emekuk,

## Partikularrik

Uztailen matematikako klase partikularrik hartuko nituzke El-yolbarren. Ahal bada, goizez eta euskaraz. er 943 74 25 17



• Zorionak Ane Lenizi, hilaren 19an 3 urte beteko dituelako. Familia osoaren partez.

## Bestelakoak

- Treanean errosario batzuk aurkitu ditut zorro batean sartuta. ir 943 74 02 68
- Belarritalwa galdu nuen Artetxe eta Herriko Antzokia bitartean, Perla zuria eta brillanteak ditu. 13 943 74 27 42
- Poltsa bat aurkitu dut Plaza Txikiko parkean. Barruan bi soineko daude. Udaltzaingoa dago.
- Errosario kaleko portal batean barruan sandaliak dituen patinen poltsa beltz bat aurkitu duenak eraman dezala Udaltzaingora edo deitu 943 74 05 37 telefonora.
- Gameboyrako bi joku aurkitu ditut Arregitorre inguruan. Tr 943 74 07 85



• Zorionak bixotz eta bildots. lia guztiaren partez eta bereziki, Ainhoa, Garazi eta Josebaren partez.



• Zorionak Unai, hilaren 15ean 7 urte beteko dituzulako. Familiaren eta bereziki, zure arreba Aneren partez.



• Zorionak Nere-ri, hilaren 7an 3 urte bete zituelako. Familiaren partez muxu handi bat.

1 Zorionak Itziarri, hilaren 6an 17 urte bete zituelako. Koadrila guztiaren partez.



• Zorionak Jone-ri, igandean 4 urte beteko dituzulako, datorrenean 5, hurrengoan Lasai denak etorriko dira-eta. Etxekoan partez.

## Agurrak

- Zorionak Ane Agirregomezkorta San Fermin egunean 19 urte bete zituelako. Familiaren partez.



# LYZAIDE

## KAFETEGIA JATETXEA

Ospitale parean  
Mendarozabai, z/g  
Tel: 943 75 51 44175 61 66  
**MENDARO**

- Ezkontzak
- Jaunartzeak
- \*Bataioak
- \*Banketeak
- Enpresentzako jatorduak
- Urtebetetzeak
- Despedidak



*Ondo pasa jaiak!*

# ZEZEN-BIDE

## AUTO-ESKOLA

Auto, autobus, kamioi  
eta motorrentzako  
gida-baimenak



*%10eko deskontua  
Gazte Txartelarekin*





# EL GOIBARKO 'AZIOATEKO

## XIV. FOLKLORE JAIALDIA

UZTAILAK 22, Iarunbata

Gaueko 10,30etan



KUBAN ERREPUBLIKAKO KOSAKOAK



HARITZ EUSKAL DANTZARI TALDEA



Musika eta Dantza  
Udal Fundazioa



Aldundia

111/4,  
SAREA

Sarea



Kirol Patronatua

TXANKAKUA

Txankakuct



Euskal Dantzari Tolda

# OLAIZAGA KIROLDEGIAN